

BANDOA

2020ko IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Iragarki hau, jakinarazpena izango da herritarrentzat Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 3/86 Zerga-Arau Orokorrak bere 125.2 atalean adierazitakoaren arabera.

ORDAINTZEKO TOKIAK ETA MODUAK

1. Borondatezko ordainketa:

a) Epea: Aurtengo **uztailaren 1etik irailaren 15era** arte, biak barne.

b) Ordaintzeko tokia eta modua:

- HELBIDERATU GABEKO erreziboak: Edozein kasutan ere, etxeetara bidali den jakinarazpena Kutxabank. Laboral Kutxa eta Caixabank edozein bulegotan aurkeztuz.
- HELBIDERATUTAKO erreziboak: Banketxe zehatz baten bitartez ordainketa egiteko agindu duten zergadunen kasuan, erreziboa horretarako ezarritako kontuan **uztailaren 6ean** kargatu zaie.

Ordainketa helbideratu bazenu eta, hala ere, etxean jakinarazpena jaso baduzu, jakinarazi iezaguzu akats hau.

Jakinarazpena jaso ez, edo jakinarazpena galdu bada, Udaletxeko bulegoetara joan zaitezte.

Jakinarazpenik jaso ez arren, ordainketa egin behar da.

2. Bide exekutiboan

Borondatezko ordainketako epea amaituta, derrigorrezko epea automatikoki hasiko da, %5eko gainkargua ezarriz. Premiamenduzko erabakia jakinarazten denetik hilabete bat igarota, gainkargua %20koa izango da eta, horrez gain, borondatezko epea bukatu zenetik berandutze-interesak eta legez galdatu daitezkeen kostuak gehituko dira.

Berrizen, 2020ko ekainaren 30ean

ALKATEAK

Rolando Isoird Refoyo

